

**2015.10.19**  
**LURRALDE ANTOLAMENDUKO 24. bilerako AKTA**  
X.I., O.A., A.I., A.R., A.G., I.A., K.F., D.E.

Gai ordena:

- 1- Inbertsio proposamenak 2016ko aurrekontuetan sartzeko
- 2- Hirigintza arauen eguneraketa (prozesua nola egin nahi dugun)
- 3- Biodibertsitaterako Aldunditik dirulaguntza eta terrenoen erosketak
- 4- Gai pendienteen jarraipena eta bestelakoak

- 1- Inbertsio proposamenak 2016ko aurrekontuetan sartzeko

Lantaldeak bere proposamenak egin ditzake 2016ko aurrekontuetan sartzeko. Proposamen zehatzak hurrengo bileretara ekartzeko esan zaie lantaldeko kideei baina gaurko bileran hainbat proposamen sortu dira jadanik: Herriak Beheko kale ondoan eskuratu berri duen terrenoaren topografikoa, plazan bizikleta biltegia, eskolaren inguruan aktuazioren bat... A.R. eta K.F. kideak bizikleta biletgi hipotetiko horren arautegi proposamen bat egingo dutela adierazi dute.

- 2- Hirigintza arauen eguneraketa (prozesua nola egin nahi dugun)

3 gai mahaigaineratu dira, hirurentzako arauen eguneraketa beharrezkoa izan daiteke etorkizunean: Herriko txabolak, baserritan N etxebizitza egiteko aukera eta enpresa batek egindako eskaera zahatz bat. Txabolei dagokionez herrian dauden txabola ezberdinen inbentarioa egitea erabaki da (O.A. arduratuko da)

- 3- Biodibertsitaterako Aldunditik dirulaguntza eta terrenoen erosketak

I.A. kideak adierazi digu Aldundiaren laguntza berri bat lortu dela, zehazki 21000 euro 2016 urtean zehar erabiltzeko (basoak berreskuratu, terrenoak, Murumendi...).

- 4- Gai pendienteen jarraipena eta bestelakoak

Zubingo zaborteziaren inguruan zer egin dateken eztabaidatu da. Udalak terrenoak eskuratzea aukera bat izan daiteke, Jaurlaritzari bertako egoera konpontzeko eskatu ahal izateko.